

Eskutik helduta

**Xabier Mikel
Errekondo**

Ohikoak bilakatu zaizkigu egunkari eta sareetan bonbardatutako irudi esanguratsu batzuk. Eskutik heltzeko moda berria bailitzan, hatz-ninien arteko ukitu konplizeak hantzen. Onartutako zein baztertutako igurtzi proposamenak, kolore guztietako mundu osoari bira eman diotenak.

Egun sareak milioika aldiz biderkatzen du guztia. Egiak ala asmatuak, burmuineko antsietate –edo desira– prozesadorearen bidez irudi guztiak saretik tropelean ditugu irensten. Nago irenste prozesuan itxura apartekoak baduela erakarmenik, morboa benik... Trump jaunak, aita sainduak, Raxoi trollak edo Urkullu alaiak ematen digute joko franko.

Horia eta ilehoria. Zalantzarik gabe Trump jauna dugu liderra, bere rockabilly

zaharkituaren itxura eta urre mokoaren etorri ordainezinekin eta hainbestetan alboan daraman emazte *barbie florero*-ari egin mespretxuekin.

Israelera egin berri duten bidaiak eman digun azken poza birala izan da sareetan. Hegazkinetik jaitsi eta ohore guztien artean alfonbra gorrian lehen ministro Netanyahu-yahurengana zihoazela Trumpek eskua luzatu zion baina emazteak baztertu keinu nabarmenez. Ordainduko nukeen minutu batzuk lehenago hegazkin horretan gertatua jakiteko. Morboak imajinazio lizunetara narama sareek bultzatuta agian... *Liar, pork, stupid* bezalako adjektiboen artean zaplaztekoak eta hatz artean korapilatutako ile ilehori plastikozkoak.

Zuria eta beltza. Trumpek aita sainduari hatz-nini ttipiarekin esku santuan igurtzi-

txoa egiten dionekoa. Gurutzea eta igitaia. Bakearen eta gudaren hatz marka uzta ezin bi.

Raxoi eta Urkulluk hatz niniekin lotsati hasi zutena, Maritxu eta Bartolo lez hainbeste iturrira joz, azkenean desio pilatuak leher egin die... eta maitasunik lizunaren pareko ituna erditu.

Muxuak ere biralak bilakatu dira. Azkena eskandalu galanta sortu duen Vatikanoko kalean bertan itsatsitako Frantzisko aita sainduaren eta Trump pistoladun de-abrutu baten arteko muxu pozoitsuaren margoa.

Nik hatz-ninien ferekak baino nahiago ditut muxuak. Oxala erromatarren garai eroa nagusituko balitz! Egia ala asmatua zer axola, ez genuke izanen aspertzeko tarterik. •

1984

**Maiden lantzi
Goienetxe**

Ba omen daude bakarrik aparkatzen diren kotxeak, beren burua aparkatzen dutenak. Ez hori bakarrik; tokia ere bilatzen dute eta justu samarrekoa dela iruditzen bazaie aitzinera segitu eta hobeago bat harrapatzen dute. Orduan hara eta hona manio-bratzen hasten da bolantea, eskuen beharrik gabe. Ttak!

Garraio modu honetan ibiliko omen gara laster. Badago teknologia horretarako. Bakarrik ibiltzen zen autobus batean sartu gintuzten kazetariok egun batean. Hagitz mantso zihoan, langile bat zegoen badaezpada ere, baina ibilgailua ederki moldatzen zen bera gabe.

Gauzen Internetarekin, gainera, primeran jakinen dute semaforoetako koloreei segitzen. Trafiko seinaleak ere ezagutuko dituzte eta oinezkoren bat gurutzatzen ari bada konturatuko dira. Hurbil dugu *smart city*-a eta oraingoa baino lasaiagoa eta seguruagoa izanen den itxura hartzen diot.

Iraultza teknologiko guzietan bezala, ofizioak aldatuko dira; galdu, berriak sortu. Adibidez, zer gertatuko da taxilariarekin? Asteartean bete-bete harrapatu ninduen Bilbon lan baldintzak hobetzeko deitu zuten grebak. Komodina da taxia, apurru kasuetan, berandu nabilenean-eta hartzen dut, garraio publikoa ailegatzen ez den lekuetara iristeko. Taxirik gabe saldu-

ta sentitu nintzen. Baina badaude alternatibak, Bla Bla Car beraren gisakoak.

Gazteek aunitz erabiltzen omen dituzte –eta kostatzen zait “dituzte” idaztea eta ez “ditugu”–. Aitortzen hasita, erranen dut 1984koa naizela, George Orwellen liburua bezala, eta batzuetan nobela horren barrenean sentitzen naizela. Batez ere mugikorrak eta pantailek nola engantxatzen gaituzten ohartzean. Horien giblean noren begiak dauden edo egon daitezkeen pentsatzean. “Black Mirror” telesailaren kapitulu bat ikusi eta gorputz txarrarekin gelditzean. Hain zuzen horrek erakusten dit 1984a, 2017a edo 2084a izan, erabilera delakoa, zentzua, eta hori gurea dela. •